



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

1. OHARRA. INFORMAZIO OROKORRA ETA ENPRESAREN JARDUERA

ARABAKO KULTURA ONDARE ERAIKIA KUDEATZEKO SOZIE TATE ANONIMOA "ARABARRI" sozietatean Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko ondorengo udalek esku hartzen dute: Alegria-Dulantzi, Artziniega, Kanpezu, Agurain, Laguardia, Bastida, Aramaio, Elciego, Legutiano, Oion, Urizaharra, Berantevilla, Lagran, Samaniego, Bernedo, Harana, Arraia-Maeztu eta Añanako udalek.

Sozietatearen izen horrek aurrekoa ordezkatzen du, horrela erabaki baitzuen Biltzar Nagusiak 2002ko maiatzaren 8an. Erabaki hori Manuel M^a Rueda Díaz de Rábago notarioak 2002-7-5ean egindako eskritura publikoan (2659 protokolo zenbakia) jaso da.

Vitoria-Gasteizen eratu zen 1989ko abenduaren 22an eta gaur egun hiri horretan du egoitza: Probintziako plaza, z.g. A-01055433 zenbakidun IFK du.

Arabako Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, Anonimoen Sekzioko 393 liburuki orokorrean, 298 liburuaren 53. folioaren 3460 orrialdean.

Legeei dagokienez, Sozietate Anonimoen Legeak arautzen du. Lege horren testu bateratua abenduaren 22ko 1.564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen eta ez dago aplikagarri zaion beste berariazko araudirik.

Sozietatearen xedea Estatutuen I. tituluan jaso da, Biltzar Nagusiak 2002ko maiatzaren 8an emandako idazketan. Hona hemen:

Sozietatearen helburua honako xede hauetan datza:

- a) Gizarte eta hirigintza azterketak prestatzea eta horien jarraipena egitea.
- b) Hirigintza plan eta proiektuak formulatzea, kargen eta etekinen banaketa eta indarrean dagoen hirigintza legediaren arabera dagokion izapidetza eta onarpenerako ekimena barne.
- c) Mota guztietako eraikuntzak egiteko eta birgaitzeko proiektuak idaztea.
- d) Birgaitzeko jarduketa diren obrak egitea, baita Plan Orokorretan, Arau Subsidiarioetan eta Birgaitzeko Plan Bereziatan Ondare Eraikiaren Babesari buruz dauden hirigintza arauak gauzatzea dakarren beste edozein obra ere.
- e) Lurzoru programazioa eta prestakuntza sustatzea, Plan Orokorretan, Arau Subsidiarioetan eta Birgaitzeko Plan Bereziatan Ondare Eraikiaren Babesari buruz dauden hirigintza arauetan ezarritakoa gauzatzeko helburuaz.
- f) Onuradun ez denean, desjabetza espedienteak idazterakoan eta kudeatzerakoan lankidetzan aritzea.
- g) Plan Orokorrak, Arau Subsidiarioak eta Birgaitzeko Plan Bereziak gauzatzearen ondorio diren mota guztietako ondasun, obra eta zerbitzuak kudeatu, ustiatu eta mantentzea, baita Birgaitze Integratuko Eremuen, Hirigintza Katalogoen eta kultura intereseko ondasun kalifikatu eta inbentariatuen barruan sartutakoak ere.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

h) Kultura Ondare Eraikia –zentzurik zabalenean– babesteko helburua duten mota guztietako ekintzak burutzea, babesa ezagutza, mantentze, leheneratze, zaharberrikuntza, balioztatze eta zabalkunde bezala hartuta.

i) Sozietateak edo administrazioak bere ahalmenak gauzatzeko behar duen beste edozein agiri tekniko edo juridiko prestatzea.

Laguntza eskaerak aurkezteko epearen barruan ARABARRIk esku hartzearen bideragarritasun teknikoari, proiektu edo txosten teknikoaren beharrari, dokumentazioari eta epeei buruzko informazioa eta aholkularitza emango du.

Gero, dirulaguntza eman badiote, toki erakundeak ARABARRIren esku utziko du kontratuak egiteko kudeaketa teknikoa eta administratiboa: kontratu motaren arabera proiektua edo txostena berrikustea, baldintza ekonomiko eta administratiboen orriak prestatzea, esleipenaren txosten proposamena.

Azkenik, obra egiten ari den bitartean, ARABARRIk horren jarraipena egingo du behar bezala gauzatzen ari dela bermatzeko. Egiatagiriak edo fakturak kontrolatuko ditu eta dirulaguntza jasotzeko administrazio kudeaketan lagunduko du.

2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.

2.1. Irudi zehatza:

2008ko abenduaren 31n amaitu den ekitaldiko urteko kontuak (erantsitakoak) sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra onartu duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorren eta kontabilitate arloan nahitaezkoak diren lege xedapenen arabera aurkeztu dira. Horrela, sozietateak ekitaldi horretan izan dituen ondare, egoera eta emaitzen irudi zehatza ematen da.

Administrazio Kontseiluak egin ditu sozietatearen 2008. urteko kontuak eta Akziodunen Biltzar Nagusian onartu behar dira. Aurreikuspenen arabera, aldaketarik egin gabe onartuko dira.

Irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko arrazoi berezirik ez dago.

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez egindako lehenengo urteko kontuak dira hauek; horregatik, ez dira berdinak aurreko ekitaldian eta aurtengoan aplikatu diren kontabilitateko irizpideak.

2.2. Aplikatu diren kontabilitate printzipioak:

Urteko kontu hauek egitean memoriako 4. oharrean laburtzen diren kontabilitate printzipioak eta irizpideak aplikatu dira. Ondarean, finantza egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

2.3. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu sozietateak bere finantza egoerak; izan ere, ez da eman hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Sozietate publikoa denez orain arte kontabilitate galerak izan ditu; hori kontuan hartuta, zuzendaritzak uste du horrek ez duela ziurgabetasunik ekarriko etorkizuneko funtzionamenduan, Arabako Foru Aldundiak galera horiek konpentsatzeko konpromisoa hartu baitu. Horrela azaltzen da memoria honetako 8.3. idatz zatian.

2.4. Informazioa erkatzea:

Sozietateak 2008ko abenduaren 31n amaitu den ekitaldian izan dituen urteko kontuak azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartu duen Kontabilitate Plan Orokorraren arabera egindako lehenak izan dira. Sozietateak 2007ko abenduaren 31n amaitu zen ekitaldian izan zituen urteko kontuak egitean indarrean zegoen araudiaren aldean, araudi honek ondokoak ekarri ditu:

- Aldatu egin dira kontabilitate politikak, balorazio irizpideak eta urteko kontuak osatzen dituzten finantza egoerak aurkezteko modua.
- Finantza egoera berria sartu da urteko kontuetan; aldaketen egoera ondare garbian.
- Urteko kontuen memorian jasotako informazioa nabarmen gehitu da.

Enpresak 2008ko ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu ditu, baita 2007koak ere.

Merkataritzako Kodeko 35.6. artikuluan ezarritako betebeharraren ondorioetarako eta uniformetasun printzipioa eta erkatzeke betekizuna aplikatzearen ondorioak kontuan hartuta, 2008ko abenduaren 31n amaitu den ekitaldiko urteko kontuak hasierakotzat jotzen dira. Horrenbestez, ez da beharrezkoa aurreko urtearekin erkatu diren kopuruak ematea.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

2.5. Kontabilitateko arau berrietara igarotzearen ondoriozko alderdiak:

Kontabilitate Plan Orokorra onartu duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorrean xedatutakoarekin bat etorritz, enpresak erabaki du irekierako balantzean sartu beharreko ondare elementu guztiak uztailaren 4ko 16/2007 Legea indarrean jarri baino lehen indarrean zeuden printzipioak eta arauak betez baloratuko dituela. Lege horren bidez, hain zuzen, merkataritzako legeria erreformatu eta egokitu zen, kontabilitateari dagokionez, nazioartean harmonizatzeke, Europar Batasunaren araudian oinarrituta. Salbuespen izango dira, dena den, arrazoizko balioaren arabera baloratzen diren finantza tresnak.

Kontabilitate Plan Orokor berrira igarotzeak ez du ondoriorik izan sozietatearen ondare elementuetan. Alabaina, dirulaguntzetan aldaketa bat egin da: 2007ko ekitaldian dirulaguntzak ekitaldi ezberdinetan banatzeko sarrereren partidan sartu ziren eta orain erakundearen ondare garbian jasotzen dira.

Azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko xedapen gehigarri bakarrean eta laugarren xedapen iragankorrean eskatutako informazioa ondoren ematen da. Informazioa hurrengoei buruzkoa da:

- 2008ko ekitaldiko galera eta irabazien balantzea eta kontua, Akziodunen Biltzar Nagusiak onartu dituenak. Kontabilitate egoera horiek egiteko abenduaren 20ko 1643/1990 EDn ezarri ziren arauak bete dira:

EGOERA BALANTZEA 08-12-31N

	2008ko ekitaldia		2008ko ekitaldia
A) Akziodunak, eskatzen ez diren ordainkete	0,00	A) Funts propioak	126.743,15
B) Ibilgetua	203.981,49	I. Kapital harpidetua	76.000,00
I. Hastapen gastuak	0,00	II. Erreserbak	53.667,10
II. Ibilgetu inmaterialak	9,70	III. Bazkideek gal. konpentzatzeko eg. e	431.761,40
III. Ibilgetu materialak	203.971,79	III. Galerak eta irabaziak	-434.685,35
C) Aktibo zirkulatzailea	5.804.198,84	B) Eki. ezberdinetan banatzeko sarre	1.167.356,29
I. Izakinak	0,00	I.- Ibilgeturako dirulaguntza	203.981,48
II. Zordunak	5.475.194,84	II.- Ruiz de Vergara Jauregirako dirulag	963.374,81
III. Diruzaintza	329.004,00	C) Epe luzerako hartzekodunak	181.820,28
IV. Urtaldi amaierako doikuntza	0,00	D) Epe laburrerako hartzekodunak	4.532.260,61
AKTIBOA, GUZTIRA	6.008.180,33	PASIBOA, GUZTIRA	6.008.180,33



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUAK. 2008KO EKITALDIA

	2008ko ekitaldia		2008ko ekitaldia
A) GASTUAK	3.379.259,16	B) SARRERAK	2.944.573,81
1. Ustiapen kontsumoak	2.926.795,06	1. Ustiapen sarrerak	2.926.795,06
2. Langileen gastuak	384.684,45	a) Ustiapenaren beste sarrerak	2.926.795,06
a) Soldatak	317.549,49	b) Sarrera osagarriak	0,00
b) Gizarte kargak	67.134,96		
3. Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura	3.109,39		
4. Trafiko horniduren aldakuntza			
5. Ustiapenaren beste gastu batzuk	64.226,24		
I. Ustiapenaren mozkinak		I. Ustiapenaren galerak	452.020,08
6. Finantza gastuak	60	2. Finantza sarrerak	15.399,32
a) Bestelakoak	60	a) Bestelakoak	15.399,32
II. Finantza emaitza positiboak	15.339,32	II. Finantza emaitza negatiboak	0,00
III. Ohiko jardueren mozkinak		III. Ohiko jardueren galerak	436.680,76
7. Ibilgetuaren ondoriozko galerak	0,00	3. Eskualdatutako kapitaleko galerak	2.379,43
8. Aparteko gastuak	384,02	4. Aparteko sarrerak	0,00
9. Beste ekitaldietako galerak eta irabaz	0,00	5. Beste ekitaldietako sarrerak	0,00
IV. Aparteko emaitza positiboak	1.995,41	IV. Aparteko emaitza negatiboak	0,00
V. Zergak aplik. aurreko mozkinak		V. Zergak aplik. aurreko galerak	434.685,35
VI. Ekitaldiko emaitza (mozkinak)	0,00	VI. Ekitaldiko emaitza (galerak)	434.685,35

2.6. Partida bat baino gehiagotan jasotako elementuak:

Ez dago Egoera Balantzeko partida ezberdinetan sartu den antzeko elementurik.

2.7. Aldaketak kontabilitate irizpideetan:

Kontabilitate irizpideetan soilik egin dira kontabilitatea Kontabilitate Plan Orokorrera egokitzeko aldaketak.

2.8. Hutsen zuzenketa:

Ekitaldia ixtean ez da aurkitu kontuak berriz egiteko moduko hutsik. Ekitaldia itxi ostean zenbatespenetan doikuntzak egitea dakarren gertaera ezagunik antzemango balitz, ekitaldia ixtean dagokien ataletan aipatuko litzateke.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

3. OHARRA. EMAITZEN BANAKETA.

Administrazio Kontseiluak Biltzar Nagusiari proposatu dio 2008ko ekitaldiko galera honela aplikatzeko:

Banaketa oinarria	Zenbatekoa
Galera eta irabazien kontuko saldoa	606.541,67
Guztira	606.541,67

Aplikazioa	Zenbatekoa
Borondatezko erreserbetan	6.541,67
Bazkideek galerak konpentsatzeko egindako ekarpenetan	600.000,00
Guztira	606.541,67

4. OHARRA. ERREGISTRATZEKO ETA BALORATZEKO ARAUAK.

Sozietateak urteko kontuak egitean baloratzeko arau jakin batzuk erabili ditu, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoekin bat etorritz. Hona hemen erabilitako arauak:

4.1. Ibilgetu ukiezina:

Ibilgetu ukiezina, hasieran, kostuaren arabera baloratzen da; hau da, eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera.

Hasierako azterketaren ostean, ibilgetu ukiezina baloratzean kostua ken haren amortizazio metatua hartzen dira kontuan; baita, hala badagokio, narriatzeagatik erregistratu diren zuzenketen zenbateko metatua ere.

Ibilgetu ukiezin bakoitzean aztertu eta zehazten da bizitza baliagarria mugatua edo mugagabea den.

Bizitza baliagarri mugatua duten aktibo ukiezinak modu sistematikoan amortizatzen dira, zenbatetsi zaien bizitza baliagarriaren arabera eta horien hondar balioaren arabera. Amortizatzeko aplikatu diren metodoak eta aldiak ekitaldi bakoitza ixtean berrikusten dira eta, behar izanez gero, modu prospektiboan doitzen dira. Gutxienez ekitaldia ixtean ebaluatuko da narriatzearen aztarnarik dagoen; horrela denean, berreskura daitezkeen zenbatekoak zenbatetsi behar dira bidezkoak diren balorazio zuzenketak eginez.

Sozietateak kontabilitatean jasoko ditu aktibo horietan erregistratu diren galerak (halakorik egon bada), narriatzearen ondorioz eman direnak; horretarako, galera eta irabazien kontuko "Narriatzearen ziozko galerak" epigrafea erabiliko da kontrapartida moduan. Narriatzearen ziozko galerak aitortzeko irizpideak eta aurreko ekitaldietan erregistratu diren narriatzearen ziozko galeren ondorioak (egon direnean), aktibo materialetan aplikatutakoen antzekoak dira. Beherago azaltzen dira.

Ez dago bizitza baliagarri mugagabeko ibilgetu ukiezinik.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

4.2. Ibilgetu materiala:

Ibilgetu materiala eskuratze kostuaren, amortizazio metatuaren kostu garbiaren, arabera baloratu da, izan diren narriatzearen ziozko galerak aintzat hartuta. Elementu bakoitza eskuratzeko ordaindu den prezioaz gainera, eraikitze aldian zehar sortu diren finantza gastuak ere sartuko dira kostuan, baldin eta hauek aktiboa eskuratzeari edo fabrikatzeari zuzenean egotzi ahal bazaizkio eta erabiltzeko moduan egoteko urtebete baino denbora luzeagoa behar badute. Ekitaldian ez da kontzeptu horren ziozko zenbatekorik aktibatu.

Elementu osoen ordezkapenak edo berrikuntzak; xede den ondasunaren bizitza baliagarria areagotzen duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntza kostuak; produktibitatea edo ahalmen ekonomikoa. Horiek guztiak ibilgetu materialaren zenbateko handiena bezala zenbatzen dira eta, ondorioz, ordezkatu edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Sortzapen printzipioa betez, mantentzeko, artatzeko eta konpontzeko aldian behingo gastuak egiten diren ekitaldiko kostu moduan egotzen zaizkie emaitzei.

Metodo lineala aktiboak eskuratzeko kostuaren gainean aplikatuz eta gero hondar balioa kenduz kalkulatu da amortizazioa; izan ere, kontuan hartu behar da eraikinak eta bestelako eraikuntzak egin diren lurrek bizitza baliagarri mugagabea dutela eta, beraz, amortizatu ezin direla.

Aktibo materialak amortizatze urteko zuzkidurak kontrapartidarekin egiten dira galera eta irabazien kontuan; funtsean, elementuei batez beste zenbatetsitako bizitza baliagarriaren urte kopuruaren arabera zehaztu diren amortizazio ehunekoak dira:

<u>Kontzeptua</u>	<u>Urteak</u>
Instalazio teknikoak eta makineria	6-10
Bestelako instalazioak, tresneria eta altzariak	6-10
Informazio prozesuetako ekipoak	4-6
Bestelako ibilgetua	10-15

Sozietateko administratzaileek uste dute aktiboen kontabilitate balioak ez duela gaintzen horien berreskuratzeko balioa.

Aktibo bat besterendu edo baliogabetzean lortzen den mozkinak edo galera kalkulatzeko, aktiboaren salmentaren mozkinaren eta liburuetan duen zenbatekoaren arteko aldea atera behar da; emaitzen kontuan jasotzen da.

Finantza errentamendu moduan eskuratutako aktibo materialak errentatutako ondasunei dagokien aktiboaren kategorian erregistratzen dira, eta aurreikusi zaien bizitza baliagarrian zehar amortizatzen dira jabetzan dauden aktiboentzako metodo bera erabiliz.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

4.3. Finantza aktiboak eta pasiboak:

Sozietateak dituen **finantza aktiboak** honela sailkatzen dira:

- Kostua amortizatutako finantza aktiboak: kategoria honetan sartzen dira merkataritza eragiketen ziozko kredituak (trafiko eragiketen ondoriozko ondasunen eta zerbitzugintzaren salmentak dakartzan finantza aktiboak) eta kostua amortizatutako beste finantza aktibo batzuk (ez dira ondare tresnak edo horien eratorriak, ez dira merkataritzakoak eta horien kobrantzek zenbateko mugatua edo muga daitekeen zenbatekoa dute). Edo, beste modu batera esanda, hauek hartzen ditu: merkataritza trafikokoak ez diren kredituak, eskuratu diren zorraren balio adierazgarriak, kreditu erakundeetako gordailuak, langileentzako aurrerakin eta kredituak, eraturako fidantza eta gordailuak, kobratzeko dibidenduak eta ondare tresnen gainean eskatutako ordainketak. Kostua amortizatuta baloratzen dira.

- Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak: erantsitako egoera balantzeko epigrafe honen barruan erregistratzen dira kutxa eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk. Azken hauek, hain zuzen, kutxan arin egin daitezke eta ez dute balioak aldatzeko arriskurik.

Enpresak finantza aktibo bat baliogabetu egingo du horren ondoriozko eskubideak iraungitzen direnean edo horren titulartasuna lagatzen denean jabetzari lotutako arrisku eta mozkin adierazgarriei uko egin ostean.

Enpresak **finantza pasiboak** onartuko du kontratuan edo negozio juridikoan nahitaez jasotako alderdia bihurtzen denean. Finantza pasiboak Kostua amortizatutako finantza pasiboak bezala kalifikatzen dira; eta horien barruan sartzen dira merkataritza eragiketen ziozko zordunketak (hornitzaileak eta hartzekodunak) eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko zordunketak. Kategoria honetan sartzen diren pasiboak kostua amortizatuta baloratzen dira.

Aurrekoa gorabehera, gehienez ere urtebeteko mugaeguna duten eta hasieran balio izendunaren arabera baloratzen diren zordunketak zenbateko horren arabera baloratzen jarraituko dira.

Enpresak finantza pasibo bat baliogabetu egingo du obligazioa iraungi denean.

4.4. Izakinak:

Abian dauden birgaitzeko sustapenak edo obrak ekoizpenaren kostuaren arabera baloratuko dira. Izakinen balio garbi bihurtzeko ekoizpenaren kostua baino txikiagoa denean, beharrezkoak diren balio zuzenketak egingo dira.

4.5. Mozkinen gaineko zerga:



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

Mozkinen gaineko zergaren gastua kalkulatzeko, karga tasa ekitaldiko zerga oinarriaren gainean aplikatuta ateratzen den zerga arruntari, zerga esparruan onartzen diren kenkariak aplikatu ostean, zerga geroratuen ondoriozko aktibo eta pasiboen aldakuntza gehitu behar zaio.

Zerga geroratuen ondoriozko aktiboen eta pasiboen artean sartzen dira, aurreikuspenen arabera ordaintzekoak edo berreskuratzeakoak diren zenbatekoak bezala identifikatzen diren denbora diferentziak bider aktiboek eta pasiboek liburuetan duten zenbatekoen arteko diferentziak eta horien zerga balioa; baita ere konpentsatu gabe dauden ordaintzeko zerga oinarriak eta zerga ondorioetarako aplikatu ez diren zerga kenkarien ziozko kredituak. Zenbateko horiek erregistratzean, denbora diferentziari edo dagokion kredituari berreskuratzea edo likidatzea espero den karga tasa aplikatu behar da.

Bestalde, zerga geroratuen ondoriozko aktiboak (denbora diferentziekin identifikatutakoak) soilik onartuko dira erakundeak etorkizunean horiek erabiltzeko adina zerga irabazi izango duela uste bada eta aktiboen eta pasiboen hasierako aitorpenetik eratorritakoak ez badira (negozio konbinazioetan izan ezik) azken emaitzan eta kontabilitateko emaitzan eraginik ez duen eragiketa batean.

Kontabilitateko itxiera bakoitzean, erregistratuta dauden zerga geroratuak berrikusten dira (aktiboak zein pasiboak) indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko. Horrelakoetan, egindako azterketen emaitzen arabera beharrezkoak diren zuzenketak egiten zaizkie.

4.6. Sarrerak eta gastuak:

Sarrerak eta gastuak sortzapean irizpidearen arabera egozten dira.

Kobratuta edo kobratzeko dagoen kontraprestazioaren arrazoizko balioa kontuan hartuta kalkulaten dira sarrerak, eta emandako ondasunengatik eta jardueraren ohiko esparruan emandako zerbitzuengatik kobratu beharreko zenbatekoak dira, deskontuak, BEZ eta salmentei lotutako beste zerga batzuk kenduta.

Ondasunen jabetzari berezkoak zaizkion arrisku eta mozkin adierazgarri guztiak erosleari eskualdatu zaizkionean onartzen dira ondasunen salmentak.

Halaber, zerbitzugintzari lotutako sarrera arruntak onartzeko, balantzea egin den egunean zerbitzua zein mailatan eman den hartzen da kontuan, baina betiere eragiketaren emaitza fidagarritasunez zenbatetsi badaiteke.

Interesen ziozko sarrerak aldi baterako finantza irizpidea betez sortzen dira, kobratu gabeko printzipala eta aplikatu beharreko interes tasa kontuan hartuta, tasa honek berdinduko baititu finantza aktiboari aurreikusi zaion bizitzan zehar zenbatetsitako eskudirutako ordainagiriak aktibo horren liburuetan jasotako zenbatekoarekin.

4.7. Hornidurak eta kontingentziak:

Egoera balantzea egiten den egunean dauden obligazioek (aurreko inguruabarren ondorioz sortu direnak), sozietateari ondarean kalteak ekarriko badizkiote eta zenbatekoa eta kitatzeko unea mugagabeak badira, hornidura moduan erregistratuko lirateke egoera balantzean zenbatespenen arabera sozietateak obligazioa kitatzeko ordaindu beharko duen zenbatekoaren egungo balioarekin.

Horiek eragin dituen inguruabarraren ondorioei buruz dagoen informazioa kontuan hartuta zenbatuko dira, eta kontabilitatea ixten den bakoitzean berriz zenbatetsiko dira –hasieran aitortzeko xede ziren obligazio bereziei aurre egiteko erabiltzen dira, eta obligaziorik ez dagoenean edo obligazioa murrizten denean itzultzen dira (osorik edo horien zati bat).



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

4.8. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzuli ezin diren kapitaleko dirulaguntzetan, emandako zenbatekoa baloratzen da. Hasieran zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera moduan aitortzen dira eta emaitzei egozten zaizkie dirulaguntzen bidez finantzatutako aktiboek aldi horretan izan duten balio galeraren arabera. Besterentzen direnean edo inbentariotik kentzen direnean, hori egin den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Itzul daitezkeen dirulaguntzak diren bitartean, dirulaguntza bihur daitezkeen epe luzerako zor bezala kontabilizatuko dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko sarrera moduan egotziko dira.

5. OHARRA. IBILGETU MATERIALA, IBILGETU UKIEZINA ETA INBERTSIO INMOBILIARIOAK

5.1.- Ekitaldi honetako ibilgetu materialaren, ibilgetu ukiezinaren eta inbertsio inbiliarioen mugimenduak

	Ibilgetu ukiezina	Ibilgetu materiala	Inbertsio inbiliararioak
A) 2008ko hasierako saldo gordina	3.015,47	267.952,69	0,00
(+) Sarrerak		724.203,24	
(-) Irteerak			
B) 2008ko amaierako saldo gordina	3.015,47	992.155,93	0,00
C) 2008ko hasierako saldoaren amortiz. metatua	2.677,84	63.980,90	0,00
(+) Ekitaldiko amortiz. zuzkidura	30,18	2.208,76	
(+) Eskuratze edo eskualdatzeen ziozko gehikuntzak			
(-) Baja, irteera edo eskualdatzeen ziozko gutxi.			
D) 2008ko amaierako saldoaren amortiz. metatua	2.708,02	66.189,66	0,00
E) Narriaduragatiko balio zuzenketa. 2008ko hasierako	0,00	0,00	0,00
(+) Ekitaldian onartutako narriaduragatiko balio zuzenketa			
(-) Narriaduragatiko balio zuzenketaren lehengoratzeara			
(-) Baja, irteera edo eskualdatzeen ziozko gutxi.			
F) Narriaduragatiko balio zuzenketa. 2008ko azken sald	0,00	0,00	0,00

5.2.- Errentamenduak eta antzeko beste eragiketa batzuk:

Finantza errentamendua

Sozietateak ez du ondasunik finantza errentamenduan.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

6. OHARRA. FINANTZA AKTIBOAK

6.1. Epe luzerako eta epe laburrerako finantza aktiboak

	Epe luz. finantza tresnak			Epe lab. finantza tresnak			GUZTIRA
	Ondare tresnak	Zorraren balio adierazgarri	Besteakoea eratorritako	Ondare tresnak	Zorraren balio adierazgarri	Besteakoeatik eratorritako kredituak	
KONTUAK	2008	2008	2008	2008	2008	2008	2008
Negoziatzeko mantendu diren finantza aktiboak							0,00
Kostua amortizatutako finantza aktiboak						5.644.133,16	5.644.133,16
Kostuetako finantza aktiboak							0,00
GUZTIRA	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	5.644.133,16	5.644.133,16

Epigrafe honetan jasotzen den zenbatekoa hurrengoek osatzen dute:

- Eskudirua eta baliokide diren bestelako aktibo likidoak, hau da, enpresaren kutxa gordetako diruzaintza eta ageriko banku gordailuak. Guztira 231.926,30 euro.
- Dirulaguntzengatiko zordunak, AFA: 5.066.938,84 euro. Sozietatearen xederako laguntzak emateari buruzko foru erabakia dela eta Arabako Foru Aldunditik jasotzeke dagoen saldoa jasotzen du.
- Arabako Foru Aldundia, 311.026,94 euroren zorduna; zenbateko hori jasotzeke dago, bazkideek galerak konpentsatzeko egindako ekarpenen kontzeptuan.
- Eusko Jaurlaritza, 19.600 euroren zorduna, Kalifikatutako eta Inbentariatutako Kultura Ondasunak ukitzen dituzten Hirigintza Planeamenduko Baliabideak idatzi eta aldatzeko emandako dirulaguntzengatik.
- Aurrerakinak: 484,37 euro.
- Aurrerakinak hornitzaileei: 2.723,00 euro.
- Aldez aurreko gastuak: 2.813,70 euro.
- Ogasun Publikoa, zenbait kontzepturen zorduna. Guztira 5.087,45 euro zor dizkio Arabako Foru Aldundiak konpainiari, 2007ko eta 2008ko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergarengatik.
- Ogasun Publikoa, konpentsatu beharreko jasandako BEZ. Guztira 3.532,56 euro.

6.2. Kreditu arriskuak sortutako balio zuzenketak

Kredituak ez dira narriatu etorkizunerako zenbatetsi diren eskudiru fluxuetan murrizpenak edo atzerapenak eragiteko moduan; horrenbestez, ez da erregistratu kreditu arriskuak sortutako balio zuzenketarik.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

6.3. Arrazoizko balioa eta arrazoizko balioa kontuan hartuta baloratu diren finantza aktiboen balioko aldaketak

Ez dago arrazoizko balioa kontuan hartuta baloratutako aktiborik.

6.4. Taldeko enpresak, enpresa multianiztunak eta elkartuak

Sozietateak ez du parte hartzen taldeko beste enpresa batzuetan, enpresa multianiztunetan edo elkartuetan.

7. OHARRA. FINANTZA PASIBOAK

Epe luzerako eta epe laburrerako finantza pasiboak:

	Epe luz. finantza tresnak			Epe lab. finantza tresnak			GUZTIRA
	Zorraren			Zorraren			
	Ondare tresnak	balio adierazgarriak	Bestelakoetatik eratorritako kredituak	Ondare tresnak	balio adierazgarriak	Bestelakoetatik eratorritako kredituak	
KONTUAK	2008	2008	2008	2008	2008	2008	2008
Kostua amortizatutako finantza pasiboak			242.691,73			4.496.971,83	4.739.663,56
Negoziatzeko mantendu diren finantza pasiboak							0,00
GUZTIRA	0,00	0,00	242.691,73	0,00	0,00	4.496.971,83	4.739.663,56

- Epe luzerako hartzekodunen zenbatekoa 242.691,73 euro da. Ordaintzeko dauden eta aurreikuspenen arabera 2010eko ekitaldian zehar ordainduko diren partikularrei eta erakundeei onartutako laguntzak dira.

- Epe laburrerako hartzekodunen partidak hurrengo kontzeptuak ditu:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Partikularrei eta erakundeei laguntzeagatiko hartzekodunak	3.073.275,59
Burutu gabe dagoen adjudikatutako obra	1.208.068,34
Zerbitzuak emateagatiko hartzekodunak	173.131,30
Ordaindu gabe dauden ordainsariak	2.465,16
O. Publikoa hartzekoduna PFEZaren atxikipenengatik	29.927,52
Gizarte Segurantzako erakunde hartzekodunak	4.175,97
Epe laburrera jasotako fidantzak	5.927,95
Guztira	4.496.971,83

- Ez dago berme errealaren duen zorrik ezta ordaindu beharreko mailegurik ere ekitaldia ixtean.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

8. OHARRA. FUNTS PROPIOAK

8.1. Harpidetutako kapitala:

Sozietatearen kapitala 76.000 eurokoa da. Horietako 2.000 akzio izendunetan dago banatua; beraz, akzio bakoitza 38 euro izendunekoa da. Serie bakarra egin da, 1etik 2.000ra (biak barne) hurrenez hurren zenbaturik. Kapitala erabat harpideturik eta diru guztia jarririk dago urteko kontu hauek formulatu diren egunean.

	<u>ZENB. EUROGAN</u>	<u>AKZIO KP.</u>	<u>PARTAIK. %</u>
Arabako Foru Aldundia.....	42.484	1.118	% 55,90
Laguardiako Udala.....	1.862	49	% 2,45
Alegria-Dulantziko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Aguraingo Udala.....	1.862	49	% 2,45
Kanpezuko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Artziniegako Udala.....	1.862	49	% 2,45
Bastidako Udala.....	1.862	49	% 2,45
Aramaioko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Elciegoko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Legutianoko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Oiongo Udala.....	1.862	49	% 2,45
Urizarreko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Berantevillako Udala.....	1.862	49	% 2,45
Lagrango Udala.....	1.862	49	% 2,45
Samaniegoko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Bernedoko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Haraneko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Arraia-Maetzuko Udala.....	1.862	49	% 2,45
Añanako Udala.....	<u>1.862</u>	<u>49</u>	% <u>2,45</u>
<u>GUZTIRA.....</u>	<u>76.000</u>	<u>2.000</u>	<u>% 100,00</u>

8.2. Legezko erreserba:

Legezko erreserba Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 214. artikulua arabera zuzkitu da. Izan ere, horrek ekitaldiko mozkinen 100eko 10aren pareko kopuru bat, gutxienez, sozietatearen kapitalaren 100eko 20ra iritsi arte, bertara bideratuko dela ezartzen du.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

Ezin da banatu eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada birjarri egin beharko da etorkizuneko mozkinekin, helburu horretarako beste erreserbarik eskura ez dagoen kasuetan.

8.3. Bazkideen ekarpenak galerak konpentsatzeko:

AFAk 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren kontura konprometitutako zenbatekoa, Diputatuen Kontseiluaren 2008ko ekainaren 17ko 381 Foru Erabakiaren arabera, 600.000 euro dira eta ekitaldiko galerak, Akziodunen Biltzar Nagusiak onartzeko daudenak, 606.541,67 euro. Konpentsatzeko dagoen diferentzia Borondatezko Erreserben konpentsazioaren bidez estaliko da, 6.541,67 euroko zenbatekoaz.

9. OHARRA. ZERGA EGOERA

Mozkinen gaineko zerga

Zerga oinarria bat dator kontabilitateko emaitzarekin: 606.541,67 euro.

Sozietateak ez ditu erregistratu erantsitako balantzean denbora diferentzia kengarrien zerga geroratuaren ziozko aktiboa, zerga oinarri negatiboak edo bestelako zerga kredituak, zuhurtzia printzipioari jarraituta; seguruena etorkizunean ez baitira lortuko aktibo horiek aplikatzeko aukera emango duten zerga irabaziak.

Azken lau ekitaldiak ikuskatuko dira. Zergen aitorpenak ezin dira behin betikotzat jo harik eta preskribitu arte edo zerga agintariak onartu arte; hori gorabehera, zergaren arloko legerian interpretazioak egin daitezke. Administrazioaileen ustez, egin daitezkeen ikuskapenen ondorioz agertzen den edozein zerga pasibo osagarrik ez du ondorio esanguratsurik izango osorik hartutako urteko kontuetan.

10. OHARRA. SARRERAK ETA GASTUAK

10.1. Hornidurak:

Urizaharran hondatuta dagoen eraikin bat duen orube bat erosteko kostua 48.081,00 € da eta etxebizitzak sustatze aldera eraikina eraisteko lanak hasteko kostua 8.600,01 €.

Arabarriren etxebizitzak eraiki eta birgaitzeko sustapen eta kudeaketarako jarduketa programa berrian sartzen da aipatutako erosketak. Eraikitzeke lurzorua, herrigune historikoetako eraikinak edo horietatik kanpo katalogatuta dauden eraikinak erosi eta etxebizitza berri bihurtzeko birgaituko ditu.

10.2. Aribideko produktuen izakinen aldakuntza:

Epigrafe honen barruan sartzen da aurreko puntuan aipatu den Urizaharreko sustapenaren gastuak izakin modura aktibatzea.

2008ko ekitaldian guztira 70.166,00 euroko gastuak aktibatu dira; hau da, aurreko 10.1. puntuan azaldu diren hornidurak aktibatu dira, baita eraikuntza aldian zeharka egotzitako beste kostu batzuk ere: notarioaren, erregistratzaileen, abokatuen eta zerbitzu teknikoaren gastuak, guztira 13.484,99 euro.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

10.3. Ustiapeneko bestelako gastuak:

Epigrafe honen barruan sartu dira kanpoko zerbitzuak eta konpainiak 2008ko ekitaldian zehar onartu dituen laguntzak.

Honela xehatuta ageri da:

- a) Arabako Foru Aldundiak partikularrei zuzenduriko laguntzak: 1.033.439,41 euro.
- b) Arabako Foru Aldundiak erakunde laguntzaileei (udalei eta administrazio batzarrei) emandako laguntzak: 1.546.204,11 euro.
- c) Arabako Foru Aldundiak eraikin katalogatuei emandako laguntzak: 414.981,39 euro.
- d) Eusko Jaurlaritzaren laguntzak: 65.106,88 euro.
- e) Kanpoko zerbitzuak eta toki zergak: 253.538,79 euro. Horren barruan sartzen dira, gainera, Arabarriren kudeaketa gastuak eta kultura hedapenerako jarduerak antolatzekeo gastuak: 168.395,75 euro.

10.4. Langileen gastuak:

“Langileen gastuak” epigrafean hurrengo partidak jasotzen dira:

Soldata	364.578,85 €
Enpresaren konturako Gizarte Segurantzza	35.788,36 €
Beste gizarte gastu batzuk	9.830,37 €
Langileen gastuak, guttira	410.197,58 €

10.5. Amortizazioaren zuzkidura:

Elementu amortizagarriaren bizitza baliagarriari dagokion urteko kuota biltzen du (ikus 4.1 eta 4.2 OHARRAK).

10.6. Ustiapeneko bestelako sarrerak:

Epigrafe honetan jasotzen diren partidak honako hauek dira:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Walled Towns Foundation Circle-n dirulaguntza	30.965,41
Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak	65.106,88
Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntzak	2.994.624,91
- partikularrei	1.033.439,41
- toki erakunde laguntzaileei	1.546.204,11
- katalogatutako eraikinetarako	414.981,39
Emaitzara transferitutako kapitaleko dirulaguntzak	2.238,94
- Ibilgetu ukiezina	30,18
- Ibilgetu materiala	2208,76



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

11. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Honako hau da partida honen osaera zehatza:

DESKRIBAPENA	08-1- leko saldoa	Gehik untzak	Murrizk etak	08-12- 31ko saldoa
AFaren dirul. ibilgetu ukiezina eskuratzeko	9,68	327,93	-30,18	307,43
AFaren dirul. ibilgetu materiala eskuratzeko	4.525,94	5.047,16	-2.208,76	7.364,34
AFaren dirul. aribideko ibilgetua eskuratzeko	199.445,86	719.156,07		918.601,93
AFaren dirul. Ruíz de Vergara jauregiaren hitzarmena egiteko	963.374,81		-708.940,67	254.434,14
AFaren dirul. sustatu eta birgaitzeko hitzarmena egiteko		600.000,00		600.000,00
Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak, guztira	1.167.356,29	1.324.531,16	-711.179,61	1.780.707,84

Ruiz de Vergara jauregiko dirulaguntzaren kontzeptuko 254.434,14 euroko kopurua, Arabako Foru Aldundiaren 1.000.000,00 euroko ekarpenaren kontura egiteko dauden obrei dagokie, Ruiz de Vergatarren jauregia izandakoa zaharberritzeko obrak egiteko eta finantzatzeko 2006ko abenduaren 28ko 1218 Foru Erabakiaren bidez onartutako hitzarmenaren arabera. Jauregi hori Arabarriren egoitza izango da. Beraz, obrak egin ahala, partida hau Ibilgeturako dirulaguntzetan birsailkatuko da.

2008ko azaroaren 25ean Arabako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 827 zenbakiko erabakia hartu zuen; horren arabera, eta Arabako udalerrietan etxebizitza eskuragarria lortzeko eskaria beteko duen sustapen pribaturik ez dagoela kontuan hartuta, 600.000 euroko aurrekontu partida esleitu zitzaion Arabarriri honek etxebizitzak sustatu eta kudea zitzan. Sozietateak, beraz, herrigune historikoetan eraikitzeko lurzorua erosiko zuen edo herrigune horietatik kanpo katalogatuta dauden eraikinak eskuratuko zituen zaharberritu eta etxebizitza bihurtzeko. Eraikinak besterentzen diren, narriaduragatik balioa zuzentzen zaien edo balantzean baja ematen zaien ekitaldian bertan egotziko da emaitzetara ekarpen hori.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

12. OHARRA. ERAGIKETAK LOTUTAKO ALDERDIEKIN.

Aurreko 8. oharrean azaldu bezala, Arabako Foru Aldundiak du Arabarrin partaidetza handiena. Horrela, memoria honetako oharren bidez erakunde horrekin egindako eragiketa eta saldoen berri eman da.

Administrazio Kontseiluko kideen eta goi zuzendaritzako kideen ordainsariak:

2008ko ekitaldian zehar Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso inolako kontzepturengatik.

Sozietateak erantzukizun zibileko aseguruak harpidetu du kontseiluko kideen alde.

Goi zuzendaritzako kideengatik ekitaldian sortutako soldata gordinen zenbateko osoa 141.348,57 euro da. Kudeatzailearen eta, titularrak gaixotasun baja hartzen badu, ordezkoren soldata gordinak sartzen dira zenbateko horretan.

Goi zuzendaritzako kideei eta administrazio organoko kideei ez zaie aurrerakinik eta krediturik eman.

Auditoreen ordainsariak:

Sozietateko kontu auditoreengatik ekitaldian sortutako zerbitzu sarien zenbatekoa 3.470,92 euro da.

Administratzaileek beste sozietate batzuetan duten parte hartzea:

Uztailaren 17ko 26/2003 Legearen bidez aldatu egin dira uztailaren 28ko 24/1988 Legea, Balio Merkatuarena, eta Sozietate Anonimoen buruzko Legearen Testu Bateratua (abenduaren 22ko 1546/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), sozietate anonimoen gardentasuna indartzeko helburuz. Bada, 26/2003 lege horretan ezarritakoa betez, Administrazio Kontseiluko honako kide hauek adierazi dute 2008ko abenduaren 31n karguak edota eginkizunak dituztela Arabarriren jardura mota berbera, antzekoa edo osagarria duten sozietateetan, sozietate publikoak edo erakunde publikoek zuzenean edo zeharka parte hartzen duten sozietateak izanik. Hona hemen kideak eta sozietateak:

- Alfredo de Miguel Agirre jauna administrazio organoko kidea da eta kargu horren eginkizunak betetzen ditu hurrengo sozietateetan: Araba Uraren Agentzia, S.A.; Araba Garapen Agentzia, S.A.; Vías de Álava, S.A.; Arabako Teknologi Elkartegia, S.A.; Landaburu Etxea, S.L.; Vital Kutxa; Dinero Activo, S.A.; Hazibide, S.A.; Lasgarre, S.A.; Promoción Inmobiliaria Alavesa, S.A.; Estacionamientos Urbanos del Norte, S.A.; Araba Gertu, S.A.; Viuc Promociones, S.A.
- Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo andreak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Arabako Kalkulu Gunea, S.A.n.
- Iñaki Nafarrate Kortabarria jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Araba Uraren Agentzia, S.A.n eta Arabako Lanak, S.A.n.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

- Agustín Osoa Eribeko Landa jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Naturgolf, S.A.n.
- Javier Pérez López jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Urduñako Industrialdea, S.A.n, Burtzena Enpresa Parkea, S.A.n eta Zarautzko Industrialdea, S.A.n.
- Juan Carlos Alonso Ramírez de la Peciña jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Agencia para la Revitalización Integral de la Ciudad Histórica de Vitoria-Gasteiz, S.A.n, eta Zabalgunea 21 Udal Hirigintza Elkartean.
- Luis M^a Ortiz de Arrizabaleta Fernández de Jauregui jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Lur Lautada XXI, S.A.n.
- Pedro San Vicente Corres jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Harana-Kontrasta, S.A.n, Harana Lantzen, S.L.U.n eta Desarrollo Integral Harana XXI, S.L.n.
- Pedro M^a Rodríguez Uzquiano jaunak administrazio kontseiluko kide bezala eginkizunak betetzen ditu Proyectos Integral Barbacana, S.L.n.

13. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA

Sozietateak 2008ko ekitaldian enplegatu dituen pertsonen batez besteko kopurua beheko taulan adierazten da, lanbide kategorien arabera banatuta:

Ekitaldian zehar enplegatutako batez besteko pertsona kp., kategorien arabera	Gizonak	Emakumeak	2008an guztira
Zuzendariak	1+ 0,80		1+ 0,80
Laguntzako teknikari eta profesionalak	3,00	0,38	3,38
Administrariak		1,00	1,00
GUZTIRA	4,80	1,38	6,18

2008ko ekitaldian kudeatzaile berria kontratatu da behin-behinean, titularrak gaixotasun baja hartu duelako.

2009ko ekitaldiko lehenengo hilabeteetan ez da antzeman sozietateak 2008ko abenduaren 31n zituen finantza egoeretan eta egoera orokorrean eragin esanguratsurik izan zezakeen ekonomia eta finantza esparruetako gertaerarik.

Ingurumen esparruan ez da jarduketarik egin, sozietatearen ezaugarriak kontuan hartuz ez baita arrisku nabarmenik aurreikusi.

Administrazio kontseiluko kideak. Vitoria-Gasteizen, 2009ko martxoaren 24an.



MEMORIA AL 31 DE DICIEMBRE DE 2008

Alfredo de Miguel Agirre

Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo

Iñaki Nafarrate Kortabarria

Agustín Otsoa Eribeko Landa

Juan Carlos Alonso Ramírez de la Peciña

Javier Pérez López

José Ignacio Sáenz Iraizoz

Martín Arriolabengoa Unzueta

Rafael Larrea Rubio

Pedro María Rodríguez Uzquiano

Cristina García Saenz

Pedro San Vicente Corres

Luis M^a Ortiz de Arrizabaleta Fdez. de Jauregui

Abilio Iza Ruiz